

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DONEMILIAGAKO UDALA

#### 2024ko ekainaren 24ko jakinarazpenaren iragarkia, udalaren biztanle erroldan behar ez bezala inskribatzeagatik ofizioz baja emateko espedientea hasteko prozeduran

Alkatetzaren 2024ko ekainaren 19ko 2024/106 Dekretuaren bitartez, erabaki zen espedientea hastea behar ez bezalako inskripzioagatik baja emateko Y6946251N zenbakiko txartelarekin udalerriko biztanleen erroldan erroldatuta dagoen pertsonari, udalerrian benetan bizi izan gabe erroldatu baitzen (Toki Erakundearen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Arautegia, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsia, 54. artikulua).

Bizilekuan banakako jakinarazpena egiten saiatuta ezin gauzatu izanenez, urriaren 1eko 39/2015 Legean (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) ezarritakoaren arabera, ediktu baten bidez egiten da, zeinaren bitartez jakinarazten baitzaio 15 eguneko epea duela udalerrin honetako biztanleen erroldan baja ematearekin ados dagoen ala ez jakinarazteko. Ados ez egotekotan, udalerrin honetan bizi dela egiaztatze egokitzat jotzen dituen alegazioak, agiriak eta justifikazioak aurkez ditzake.

Aurreikusitako epea igarota, eta erroldatze kontseiluak baieztatu txostena eman ondoren, baja emango zaio erroldan eta hauteskunde erroldan.

Erdoña, 2024ko ekainaren 24a

*Alkatea*

**ERIKA LETAMENDI HURTADO**